


MENDIOLA BASERRIA
C MAILA

ULIA PASEALEKUA 424



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Harlangaitz hormazko eraikuntza. Behe oina, lehen oina eta estalkipeko bigarren oina ditu. Birgaitze lanean, bistako harrizko aparailuz utzi da. Harlanduzko azpadurak dituzten fatxada nagusiko baoak eta sarrerako arku eliptikoen pareta nabarmentzen dira. Etxeak gorputz erantsiak ditu albo batean eta atzeko fatxadan. Sarrera lehen oinaren mailan dauka.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: gorputz erantsiak eta leihoen arotzeria.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; arkuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.